



Lehiaren  
Euskal Agintaritza  
Autoridad Vasca  
de la Competencia

## BILBOKO UDALAREN APARKALEKU ARAUTUA ETA APARKATZEKO APLIKAZIOAK

**LEA. ZK.: 220-PROM-2016**

### Osoko Bilkura

Alba Urresola Clavero andrea, presidentea  
Rafael Iturriaga Nieva jauna, kidea  
Enara Venturini Álvarez andrea, kidea  
Ainara Herce San Martín andrea, idazkaria

Lehiaren Euskal Agintaritzak osoko bilkura egin du 2020ko azaroaren 20an, goian zehaztutako pertsonekin, eta adostu du LEA 220-PROM-2016 espedienteari lotuta (Bilboko Udalaren aparkaleku arautua eta aparkatzeko aplikazioak) erabaki hau hartzea.

### I. EGITATEAK

1. 2015. urtean, Bilboko Udalak (aurrerantzean, Udala) 2015-054145 espediente-zenbakia duen lizitazioa deitu zuen, xede honekin: «Bilboko TAO Ordenantza betetzen dela zuzenean kontrolatzeko zerbitzuak, eta lotutako zerbitzuak».

Enpresa adjudikaziodunak aparkaleku publikoa eta kobrantza-sistema telefono mugikorraren bidezko ordainketa-sistemaren aplikazio publiko ofizialaren bidez kudeatzeko baldintzak ezartzen ziren lizitazio horretan. Kontratua 2016ko ekainaren 24an adjudikatu zen.

2. Baldintza Teknikoen Agirian, adjudikaziodunak eman beharreko **Sistemen eskakizunei** (28. artikulua) buruzko atalean, honako baldintza hauek ezartzen ziren:

- Kontrol Zentroa diseinatzean:



4.l.m **Azaleko aparkalekuen ordainketa-zerbitzuak eskaintzeko hirugarrenek merkaturatutako aplikazioekin integrazeko beharrezkoak diren mekanismoak.** Integrazio horrek bermatu behar du aplikazio horietatik txartel baliodunak jaulkitzen direla, bai eta Udalari dagozkion tasei lotutako zenbatekoak ordaintzen direla ere.

- Ordainketa-pasabidea:

(...) ordainketa-pasabide bat bankuko kreditu-txartelarekin ordaintzeko parkimetroetan, aplikazio mugikorren bidez eta web-orriaren bidez.

- Mugikortasuneko aplikazio ofizialaren eskakizunak

(...) Udalaren TAO zerbitzuaren terminal mugikorretarako (tabletak edo smartphoneak) udal-aplikazio korporatiboa hornitzea.

(...) hasierako aktan aplikazio mugikorraren proposamena aurkeztu beharko da.

**3. EASYPARK ESPAÑA, SLU enpresak aparkaleku arautuak terminal mugikorretan instalatzen diren aplikazioen bidez ordaintzeko zerbitzuak ematen ditu.**

**4. Mugikorretan instalatutako aplikazioen bidez araututako aparkalekuaren ordainketa-merkatua araututako aparkatze-merkatuaren osagarria da. Merkataritza-eskaintza desberdina bada ere, enpresa berak eman dezake.**

**5. EASYPARK ESPAÑA, SLUk, 2016ko urriaren 14an, Udalari eskatu zion udalerrri horretan zerbitzuak emateko behar ziren guztiak bideratzeko. Udalak ez zion eskatutako sarbide hori eman enpresari, ez eskaera horren ondoren ez ondorengo eskaeren ondoren.**

**6. 2016ko urriaren 17an, idazki bat jaso zen LEAren erregistroan; idazkiaren bidez eskatzen zen Lehiaren Euskal Agintaritzak Udalarekin bitarteko lanak egiteko eta hari ohartarazteko app teknologiako enpresei modu irekian eskaini behar zaiela zerbitzua emateko behar den eskuragarritasun teknikoa, udal zerbitzuarekin egiten den bezala.**

**7. Enpresak emandako informazioa aztertu ostean, LEAk erabaki zuen Udala udal-aparkaleku arautuak kobratzeko kudeaketa-zerbitzuen merkaturako sarbidea murrizten egon zitekeela; hori dela eta, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko otsailaren 2ko 1/2012 Legearen 1. eta 3. artikulua oinarritzat hartuta, lehia askea sustatzeko lanak hasi zituen Bilboko Udalarekin.**

**8. Ordutik gaur egun arte, LEAk harreman estua izan du Udalarekin, eta jarduketan egoeraren jarraipen zorrotza egin du, Bilbon araututako aparkalekuen kobrantza/ordainketa kudeatzeko zerbitzura sartzeko aukera emateko beste operadore batzuei.**



Jarduera horiek gehiegi atzeratu dira hainbat inguruabarren ondorioz –Udalak kontrol zentro berri bat sortzea, KEAOk etendako kontratua esleitzeko prozedura eta zerbitzuaren adjudikazioduna aldatzea, besteak beste–, baina, azkenean, Bilboko Udalak eta merkatuan dauden bi operadorek bi hitzarmen sinatu dituzte.

**9.** Hitzarmenak Bilboko Udalari bidaltzeko errekerimenduak egin ondoren, egiaztatu da honako operadore hauekin sinatu dela hitzarmena, data hauetan:

-Parking Internet, SLU, 2020ko urtarrilaren 29a.

-EASY PARK, SLU, 2020ko maiatzaren 14a.

## **II. ONDORIOA**

**10.** Hitzarmen horiek formalizatzeak esan nahi du zerbitzuaren emakidadunaz gainera bi lehiakide berri sartuko direla merkatuan, hasiera batean hornitzaile bakarra baitzen. Beraz, horrek esan nahi du Administrazio Publikoak uneoro zaindu behar duen neutraltasun lehiakorra bermatu behar dela.

**11.** Erabaki hau hartu den egunean, oraindik, zerbitzuaren hornitzaile berriek ez dituzte zerbitzuak beren aplikazioetan eskaintzen Bilbon. Zerbitzua emateko egokitzapen tekniko batzuk egin behar direnez, enpresak doitze-prozesuan egongo direla ulertzen da.

**12.** Aurreko guztiagatik, eta sustapen-jarduerekin amaitu ondoren, zerbitzuaren zergadun-emakidadunaren monopolioa hausteko, merkatu horretan sartzeko oztopoak kentzeko eta Bilboko Udalaren neutraltasun teknologikoa bermatzeko helburua lortu denez, Lehiaren Euskal Kontseiluak

## **III. ERABAKI DU**

Amaitutzat ematea LEA 220-PROM-2016 espedienteko (BILBOKO UDALAREN APARKALEKU ARAUTUA ETA APARKATZEKO APLIKAZIOAK) sustapen-jarduerak.